

nikus  
ker.

Instagram

38. TXOSTENA · 2023KO URTARRILA



# AURKIBIDEA

1. ZER DA IKUSIKER .....	3
2. OHAR METODOLOGIKOAK.....	4
3. EMAITZAK .....	5
3.1 SARE SOZIALEN ERABILERA.....	5
3.2 INSTAGRAM.....	7
4. LABURREAN.....	15

**Nola aipatu:** *Ikusiker (2023): Instagram. 38. Txostena. UPV/EHU. [www.ikusiker.eus](http://www.ikusiker.eus)*

# 1. IKUSIKER

Euskal Herriko gazteek dauzkaten ikus-entzunezkoen kontsumoak eta Informazio eta Komunikazio Teknologien (IKT) erabilerak aztertzen ditu IKUSIKER ikerketak (Applika+ izeneko proiektua: US22/23).

Ikerketa burutzeko, Bigarren Hezkuntzako eta unibertsitateko ikasleez osatutako bi panel daude martxan eta aldiro-aldiro inkestak luzatzen zaizkie, 12-23 urte bitarteko gazte hauek dituzten portaerak ezagutzeko.

Egitasmo hau, 2018-2019 ikasturtetik aurrera UPV/EHUko NOR taldeak, EITBk, Kulturaren Euskal Behatokiak, Tabakalerak eta Euskararen Erakunde Publikoak burutzen dute, tokian tokiko ikasketa-zentroekin elkarlanean.



**UPV/EHUko Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatea**

**Sarriena auzoa z/g, 48940 Leioa (Bizkaia)**

**+34 747 414 355**

**[ikusiker@ehu.eus](mailto:ikusiker@ehu.eus)**

## 2. OHAR METODOLOGIKOAK

Ikerketa burutzeko, Euskal Herriko Unibertsitateko (UPV/EHU) eta Nafarroako Unibertsitate Publikoko (NUP) bi mila ikasletik gorako panela osatu da. Unibertsitari hauek modu iraunkor eta maiztasun handiz erantzuten dituzte luzatzen zaizkien online galdera-sortak ([www.encuestafacil.com](http://www.encuestafacil.com) plataforma erabiliz), beti ere ikus-entzunezkoen kontsumoei eta IKTen erabilerei buruzkoak. Landa-lana eta datuen kudeaketa egiteko Aztiker Soziologia Ikerlanean laguntza jaso dugu.

Txosten honetan aurkituko daitezke 2022ko azaroaren 28tik abenduaren 4ra bitartean, Instagram sare sozialari buruz eginiko inkestaren emaitzak. Guztira, 18 eta 23 urte bitarteko 2101 ikasleen erantzun baliagarri jaso dira.

Dokumentuaren hasieran, sare sozial desberdinen pisua zenbatekoa den zehazten da eta gero Instagramen gaineko galderen emaitzak eskaintzen dira: irismena, koneksioa maiztasuna, erabilera desberdinak, jarraitzen diren perfilak eta balorazio orokorra, besteak beste.

### 3. EMAITZAK

#### 3.1 SARE SOZIALEN ERABILERA


Inkesta honetan, gehien erabiltzen dituzten sare sozialei buruz galdetu zaie panelistei. Zehazki, gehien erabiltzen duten sare sozialaz, bigarrenaz eta hirugarrenaz galdegin zaie inkestan. Lehen galderaren kasuan, hiru sare sozialen artean kokatzen dira inkestatuen % 85,6: Instagram, Whatsapp eta TikTok.

Gehien erabiltzen den sare soziala, inkestatu gehien kasuan, Instagram da (% 34,7k aukeratu du). Ondoren dator Whatsapp (% 32,8k aipatua) eta hirugarren lekuan TikTok (% 18,1ek). Youtube eta Twitter ere aukeratu dituzte pertsona batzuek, erantzuleen % 9,0k eta % 4,3k hurrenez hurren.

##### 1. Irudia – Aukeratu zerrenda honetatik zuk GEHIEN erabiltzen duzun sare soziala

	Maiztasuna	Ehunekoak (%)
Instagram	729	34,7
Whatsapp	688	32,8
TikTok	380	18,1
Youtube	188	9,0
Twitch	11	0,5
Twitter	90	4,3
Telegram	3	0,1
Facebook	4	0,2
Besteren bat	6	0,3
Guztira	2.099	100,0

Iturria: Ikusiker, Applika+




Gehien erabiltzen den bigarren sare sozialaren kasuan, hiru aukera nagusiak errepikatu egiten dira eta baita haien hurrenkera ere: Instagram dator lehenengo (% 32,9), ondoren Whatsapp (% 32,0) eta hirugarren lekuan mantentzen da TikTok (% 15,3k esana).

## 2. Irudia – Aukeratu zerrenda honetatik zuk **BIGARREN GEHIEN** erabiltzen duzun sare soziala

	Maiztasuna	Ehunekoak (%)
Instagram	690	32,9
Whatsapp	670	32,0
TikTok	320	15,3
Youtube	253	12,1
Twitch	26	1,2
Twitter	100	4,8
Telegram	7	0,3
Facebook	2	0,1
Snapchat	6	0,3
Besteren bat	23	1,1
Guztira	2.097	100,0

Iturria: Ikusiker, Applika+




Azkenik, gehien erabiltzen den hirugarren sare sozialaren kasuan zertxobait aldatzen da podiuma; Whatsapp aipatzen da lehen kasuan (% 23,1), Youtube agertzen da bigarrenean (% 20,8) eta TikTok hirugarrenean (% 20,7).

### 3. Irudia – Aukeratu zerrenda honetatik zuk HIRUGARREN GEHIEN erabiltzen duzun sare soziala

	Maiztasuna	Ehunekoak (%)
Instagram	384	18,4
Whatsapp	483	23,1
TikTok	433	20,7
Youtube	435	20,8
Twitch	39	1,9
Twitter	201	9,6
Telegram	14	0,7
Facebook	16	0,8
Snapchat	28	1,3
Besteren bat	55	2,6
Guztira	2.088	100,0

Iturria: Ikusiker, Applika+




## 3.2 INSTAGRAM

Inkesta honetan aprobetxatu da gehientsuen erabiltzen den sare sozial bati buruz galdetzeko, Instagrami buruz zehazki. Erantzun duten 2.101 pertsonetatik 1.880k adierazi dute sare sozial hau erabiltzen dutela (% 89,5). Ikasleen beste % 7,1ek adierazi du Instagram kontua baduela baina ez duela erabiltzen, eta gainerako % 3,4k esan du ez duela konturik sare sozial honetan.

#### 4. Irudia – Instagramen kasuan, esan mesedez, ea erabiltzen duzun sare sozial hori.

	Maiztasuna	Ehunekoak (%)
Ez daukat konturik Instagramen.	72	3,4
Kontua badaukat baina ez dut erabiltzen.	149	7,1
Bai, erabiltzen dut Instagram.	1.880	89,5
Guztira	2.101	100,0

Iturria: Ikusiker, Applika+



Instagramerik eskaintzen dituen aukeren artean, erabilerari erreparatuta, desberdintasun nabarmenak ikusten dira. Segidako grafikoan ordenatuta daude gehien erabiltzen direnetik gutxien erabiltzen direnera ordenatuta.


Aukera erabiliena Story-ak dira: % 70,3k dio askotan edo batzuetan erabiltzen dituela. Segidan Feed-ak datoz, % 26,0k erabiltzen dituenak askotan edo sarritan. Hirugarren lekuan Reel-ak daude, % 22,4k erabiltzen dituenak askotan edo sarritan, baina kasu honetan dagoeneko inkestatu gehienek ez dutela inoiz erabiltzen diote (% 58,0k). Instagram TV eta Live-ak ez ditu inoiz erabiltzen erantzuleen hamarretik zortzi inguruk.

#### 5. Irudia – Instagrameko aukera bakoitza zein maiztasunarekin erabiltzen den

	Askotan	Batzuetan	Gutxitan	Inoiz ez
Story-ak	32,4	37,9	25,8	3,9
Feed-a (Post-ak)	6,6	19,4	39,3	34,7
Reel-ak	9,5	12,9	19,7	58,0
Instagram TV	0,6	2,5	11,5	85,3
Live (zuzenekoak)	0,3	1,1	16,1	82,5

Iturria: Ikusiker, Applika+





Instagram zertarako erabiltzen duten ere galdetu zaie panelistei. Hamaika erabilera posibleri buruz galdetu da, eta ageriko desberdintasunak daude elkarren artean. Erabilera handienetik txikienera ordenatu dira erantzunak:


Inkestatuen ia hiru laurdenak adierazten du “askotan” erabiltzen duela Instagram denbora pasarako (% 70,3). Bestetik, gauza entretenigarriak eta barregarriak ikusteko erabiltzen du ikasleen erdia baino gehiagok (% 58,6), eta lagunekin eta ezagunekin harremanetan egoteko ere asko aipatua izan da (% 45,4k erabiltzen du “askotan” horretarako).

Instagram gutxixeago erabiltzen da kotileoan ibiltzeko (% 33,5ek askotan), lagunekin hor elkartzeko (% 31,1ek askotan erabiltzen du, aurreko urtearekin alderatuta igoera handiarekin) edota informatuta egoteko (% 18,0k askotan). Aldiz, “gutxitan” edo “inoiz ez” aukeretan kokatu dira erantzule gehienak honako esaldiei dagokienez: bideoak eta argazkiak jartzeko, edo egiten dituen gauzak erakusteko. Azkenik, erdiek baino gehiagok esaten dute inoiz ez dutela erabiltzen ligatzeko (% 49,6), ikasteko ala lanerako (% 52,5) edota gauzak erosteko (% 81,9).

## 6. Irudia – Instagram zertarako erabiltzen den, maiztasunaren arabera.

	Askotan	Batzuetan	Gutxitan	Inoiz ez
Denbora pasarako	70,3	24,4	4,7	0,6
Gauza entretenigarriak eta barregarriak ikusteko	58,6	33,1	7,3	0,9
Lagunekin eta ezagunekin harremanetan egoteko	45,4	39,9	12,0	2,6
Kotileoan ibiltzeko	33,5	33,2	21,6	11,6
Nire lagunekin hor elkartzten naizelako	31,1	34,8	24,2	10,0
Informatuta egoteko (munduan gertatzen dena jakiteko)	18,0	44,1	27,4	10,5
Bideoak eta argazkiak jartzeko	12,1	32,3	43,0	12,6
Egiten ditudan gauzak erakusteko	7,4	27,0	41,9	23,7
Ligatzeko	2,0	14,9	33,5	49,6
Ikasteko ala lanerako	1,9	10,2	35,5	52,5
Gauzak erosteko	0,9	3,9	13,3	81,9

Iturria: Ikusiker, Applika+




Gehienbat, norberaren lagunen perfilak jarraitzen dira Instagramen; hala adierazi dute inkestatuen % 53,2k. Segidan datoz kirolarekin lotutako perfilak (% 15,9k aukeratuak), moda gaiak (% 9,0), celebrity-ak (% 5,7), musika (% 5,6), argazkilariak (% 5,5) edota gamer-ak (% 3,4).

### 7. Irudia – Gehien jarraitzen den perfil mota

	Maiztasuna	Ehunekoak (%)
Zure lagunen perfilak	990	53,2
Kirola	296	15,9
Moda	167	9,0
Celebrity-ak	107	5,7
Musika	105	5,6
Argazkilariak, zinea, kultura	102	5,5
Gamerrak	63	3,4
Makilajea	20	1,1
Politikoak	12	0,6
Guztira	1.862	100,0

Iturria: Ikusiker, Applika+



### 8. Irudia - Instagramen erabilera datu batzuk

Egunean zenbat aldiz sartzen zara Instagramera?	18,1
Batezbesteko erabilera denbora: minutu / app-an sartzen den bakoitzeko	17,4
Batezbesteko erabilera denbora: minutu / eguneko	77,0

Iturria: Ikusiker, Applika+


Inkestatutako ikasleen erantzunen arabera, ikasle bakoitza batezbeste 18,1 aldiz sartzen da egunean bere Instagram kontua begiratzera, eta sartzen diren aldi bakoitzean batezbeste 17 minutu pasatzen omen dituzte erabiltzen. Bukatzeko, ikasleek diotenaren arabera, beraien eguneko Instagram erabilera metatua ordubetetik gorakoa omen da, zehazki 77 minutukoa.

Posible balute, ikasle gehienek denbora gutxiago pasako lukete Instagramen: % 37,9k denbora apur bat gutxiago eta % 24,5ek askoz denbora gutxiago. Instagramen denbora gehiago pasako luketenak panelisten % 2,8 dira.

### 8. Irudia – Posible bazenu, Instagramen denbora...

	Maiztasuna	Ehunekoak (%)
Askoz gehiago pasako nuke	21	1,1
Apur bat gehiago pasako nuke	31	1,7
Berdintsua pasako nuke.	650	34,8
Apur bat gutxiago pasako nuke	708	37,9
Askoz denbora gutxiago pasako nuke	458	24,5
Guztira	1.868	100,0

Iturria: Ikusiker, Applika+



Esaldi batzuk aurkeztu zaizkie ikasleei eta hauekin zein neurritan dauden ados galdetu. Beheko koadroan erakusten dira emaitzak, esaldi bakoitzak jaso duen adostasun mailaren arabera ordenatuta<sup>1</sup>. Adostasun handiena jaso duen esaldia honakoa da: “Instagramen posturo gehiegi dago”. Ikasleen gehiengo oso zabala dago guztiz ados edo apur bat ados baieztapen honekin (% 94,0). Bigarren adostasun altuena jaso duen esaldiak dio “kontsumoa bultzatzen du Instagramek”. Kasu honetan ere, panelisten % 82,1 ados dago esaldiarekin.


<sup>1</sup> Horretarako, indize bat erabili da: (guztiz ados + apur bat ados / 2) – (apur bat kontra / 2 + guztiz kontra). Hala, erantzun duten guztiak guztiz ados baleude, indizea 100 izango zen, eta denak erabat kontra baleude -100.

Erantzuleak nahiko barreiatuta kokatu dira hirugarren esaldiaren kasuan: “denbora galtzeko baino ez da Instagram”. Ikasleen % 35,3 ados dago, % 33,6 kontra eta % 31,1 ez ados ez kontra. Azkenik, kontrako iritziak indar handiagoa du laugarren esaldian: “bizitza alaitu egiten du Instagramek”. Esaldiarekin ados daude ikasleen % 20,3 eta kontra % 31,6.

### 9. Irudia – Instagrami buruzko esaldi batzuekin adostasuna.

	Guztiz ados	Apur bat ados	Ez ados, ez kontra	Apur bat kontra	Guztiz kontra	Indizea (100 / -100)
Instagramen postureo (itxurakeria) gehiegi dago	71,1	22,9	4,1	1,3	0,6	81,3
Kontsumoa bultzatzen du Instagramek	40,0	42,1	14,1	2,5	1,2	58,6
Denbora galtzeko baino ez da Instagram	7,0	28,3	31,1	25,6	8,0	0,3
Bizitza alaitu egiten du Instagramek	2,4	17,9	48,1	20,1	11,5	-10,2

Iturria: Ikusiker, Applika+




Amaitzeko, Instagrami buruzko balorazio orokorra eskatu da 0 eta 10 bitarteko eskala batean (0 negatiboena eta 10 positiboena izanda). Batez beste, 6,7ko puntuazioa eman zaio. Herenak 8 eta 10 bitarteko puntuazioa eman dio, beste herena inguru 7an kokatu da eta beste heren batek 3 eta 6 bitarteko puntuazioa aukeratu du.

10.Irudia – Instagrami buruzko balorazio orokorra

	Maiztasuna	Ehunekoak (%)
10	39	2,1
9	114	6,2
8	449	24,4
7	542	29,5
6	292	15,9
5	263	14,3
4	66	3,6
3	38	2,1
2	16	0,9
1	13	0,7
0	6	0,3
Guztira	1.838	100,0
<b>Batezbestekoa (0-10)</b>		<b>6,7</b>

Iturria: Ikusiker, Applika+



## 4. LABURREAN

- Panelisten % 89,5ek Instagramen kontua dute eta % 3,4k esan du ez duela konturik sare sozial honetan. Ikasle bakoitza batezbeste 18,1 aldiz sartzen da egunean bere Instagram kontua begiratzera, eta sartzen diren aldi bakoitzean batezbeste 17 minutu pasatzen omen dituzte erabiltzen
- Instagramen eskaintzen dituen aukeren artean, erabiliena Story-ak dira: % 70,3k dio askotan edo batzuetan erabiltzen dituela.
- Inkestatuen % 70,3k adierazten du “askotan” erabiltzen duela Instagram denbora pasarako Bestetik, ikasleen erdia baino gehiagok (% 58,6), gauza entretenigarriak eta barregarriak ikusteko erabiltzen du.
- Gehienbat, norberaren lagunen perfilak jarraitzen dira Instagramen; hala adierazi dute inkestatuen % 53,2k.
- Instagrami buruzko balorazio orokorrean (0 negatiboena eta 10 positiboena izanda), panelistek eman dioten batez-besteko puntuaz

